




# Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria  
2018ko martxoan · 337. alea

TOKIKOM

Pentsio duin baten alde.  
INSULTANTE EL 0'25% LOTSAGARRIA  
Por unas pensiones dignas.  
Soraluzeko  
pentsionistak.



## AURKIBIDEA

- 4** Bote prontuan Gurutze Agirre
- 6** Begira Martxoaren Sko greba
- 8** Zer berri Aktualitateko albisteak
- 14** Argazki bidez Martxoa argazkitan
- 18** Erreportajea Pentsio duinen alde
- 22** Kirola Ixa Rodriguez
- 24** Kultura Musika, literatura eta pintura
- 26** Nondik nora Ane Ibarzabal
- 27** Gure artistak Lorea de Castro
- 28** Sakonean Domentx Uzin
- 30** Zerbitzuak Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...

## Iritzia

- 3** Neuretik Gotzon Elizburu *Sed lex*
- 16** Gutunak Korner Morea eta EHE
- 16** Hausnarketa Greba hezkuntzan
- 17** Zir(r)ika *Urban trail*
- 17** Puntua Irati Trebiño *Bainak ortuan*



## Pil-pilean herri komunikabidea

Aldizkaria ASKOREN ARTEAN egiten dugu. Bidali zure iritzia, informazioa edo proposamenak: [aldizkaria@pilpilean.eus](mailto:aldizkaria@pilpilean.eus) • 605 706 086

### Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaldunon Elkarte  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze  
Telefona 943 75 13 04

### Erredakzioa

Ubane Madera  
[ubane@pilpilean.eus](mailto:ubane@pilpilean.eus)  
Egoitz Unamuno 605 706 086  
[egoitz@pilpilean.eus](mailto:egoitz@pilpilean.eus)

### Publizitatea

[publizitatea@pilpilean.eus](mailto:publizitatea@pilpilean.eus)  
**Diseinua** Goiena,  
Oier Larreategi (moldaketak)  
**Azala** Fernan Oregi

### Maketazioa

Oier Larreategi  
**Zuzentzailea** Leire Ginea  
**Inprimategia** Gertu Koop.  
**Banaketa**  
Pil-pilean Ekoizpena

### Lege Gordailua: SS-537-2000

**Tirada:** 2.100 ale

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA**  
**POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZeko**  
**UDALA**

# Sed lex



Gotzon  
Elizburu

Larunbetean BEC!-en 10.000 euskaldun bildu ginen Berri Txarraken kontzertu gogoangarrian. Negu Gorriak taldeak 2001ean hiru kontzertutan bildu zituen 30.000 haietatik euskarazko musika talde batek egin duen balentriarik handiena. Ez da makala, musika kontsumitzeko ohiturak, besteak beste, zenbat aldatu diren ikusita.

Lehengo astean Elkar Fundazioak euskarazko kulturaren kontsumoari buruzko ikerketa baten emaitzen berri eman zuen. Emaitzek agerian utzi zuten, berriz ere, euskararen eta herri gisa gure kultura birproduzitzeko dugun gaitasunaren egoera ahula eta zaugarria dela. Euskaradunen erdiak ere ez du kontsumitzen euskarazko kultura.

60 urteotan Euskal Herrian aurrerapauso ikaragarriak eman dira

herrigintzan. Frankismoan genuen egoera latzetik asko sortu eta egin du herri honek: ikastolak, helduen euskalduntzerako eskolak, hedabideak, kultur industria txiki bat (hala dei badakiok), eta abar. Euskara ofiziala da parte batean soilik, beste parteetan aurrerapauso esanguratsuak emateko aukera dugu Euskal Elkargo sortu berriarekin eta Nafarroako aldetaren balizko errepikapen batekin. Baina mehatxu berriak bizi ditugu globalizazioaren

aro honetan eta Espainiar Erreinuaren birzentralizazio joerarekin.

Ez gaude despistatzeko moduan euskaltzaleok. Nola ditugu kulturaren eta euskararen birproduzitzorako egiturak herri honetan? Nola dago gure hedabide-sistema eta industria kulturala? Nago Durangoko Azokan entzuten ditugun kontsumo datu ponpoxoak oxigeno bonbona direla ito urren dabilen gure hizkuntzarentzat. EITB bezalako tresna garrantzitsuak espainiar agendaren menpeko ikusten ditut gehiago, beste ezertan baino. Hezkuntzaren eremuan ere, adostasun zabala dago ereduaren sistemak eman zezakeena eman duela onartzeko orduan.

Euskaraldiak arnas berria ekarri du euskalgintzara. Jendeak ilusioz eta gogotsu hartu du planteamendua. Ziur naiz Soraluzen ere ahobizi eta belarriprest ugari arituko garela euskaraz. Baina akatsa litzateke konpromisoak arlo indibidual eta pertsonalera soilik mugatzea. Erantzukizun politikoak norbanakoen gain jartzea litzateke eta horixe nahiko lukete batzuek. Euskalduntze aro berri bat irekitzeko adostasun politikoak behar dira. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Autogobernuaren Ponentzian, hiru lurraldeok behar duten estatus politikoari buruzko eztabaida ireki da. Hor gutako bakoitzaren bizitzetan hurrengo hamarraldietan eragingo diguten erabakiak hartuko dira. Euskararen arloan ere urrats kualitatiboak emateko testuinguru aproposa izan daiteke eztabaida hori.

Murgiltze ereduaren hezkuntzan ezarritik, kulturaren sustapenerako neurriak hartuz, helduen euskalduntzerako konpromiso berriak hartuz, eta abar. Baina urrats kualitatibo horiek eman ahal izateko, ezinbestekoa izango da berriz ere mobilizazioa eta herriaren presioa. Minimoak adostu eta ordezkari politikoei exijitzea. Legea baita.

## “Nola ditugu kulturaren eta euskararen birproduzitzorako egiturak herri honetan?”

# Gurutze Agirre

TESTUA: **UBANE MADERA** ARGAZKIA: **FERNAN OREGI**

Gurutze Agirre (Soraluze, 1973) pedagogo da orain dela 20 bat urte. Gurasoekin terapia egiten du, eta behar bereziak dituzten umeekin lanean dihardu. Oro har, ikasten erakusten du. Hori da pedagogo batek egiten duena. ADAHIGI elkartearen sorreran ere ibili zen 2002an (Arreta Gabezia Hiperaktibitatearekin dutenen Gipuzkoako elkarte da).

## Zer motako arazoei aurre egiten diezu?

Batez ere portaera arazoei. Haien zergatia aztertu, ulertzen lagundu eta ulertzeaz gain, zela bideratu lantzen dut gurasoekin.

## Portaera arazo horiek berriak dira, betikoak dira?

Betikoak dira, baina ikuspuntua aldatu da. Lehen etxeko eta eskolako hezkuntza zorrotza zen. Ez zegoen aukerarik hortik aldentzeko. Orain, eskoletan ahalegintzen dira umeak ulertzen, norbere izaera errespetatzen, esparrua lagatzen... eta etxean antzerako zerbaite egiten da, baina umeak galdu egiten dira.

## Zergatik?

Umeek neurriak behar dituzte. Umeek bidea ikusten dute, baina bidean hesiak ipintzen ez baditugu galdu egiten dira, eta ez dakite bueltatzen. Horretarako nagusiak egon behar dira. Mugak beharrezkoak dira. Baina nola jarri mugak? Hor dago arazoa. Uste dut pasatu garela heziketa oso zorrotzetik beste muturrera. Eta nire ustez ez da ona.

## Hortaz, eskolan norbere nortasuna errespetatzearen filosofiarekin ez zatoz bat?

Idea oso ondo dago; proiektu pilo daude. Irakaskuntza aldatzen ari da, baina ez dira baliabide nahikoa ipintzen. Teoria ezin da praktikara eraman baliabiderik ez baduzu. **Eta etxeko hezkuntzari dagokionez?**

Umeak probatu egin behar ditu gauzak, eta utzi egin behar zaio, baina helduak gu gara eta alde aurretik ikusi egin behar ditugu ze ondorio duten probatze horiek. Lan gogorra da. Eta ez dago formularik. Azken batean, gakoa da koherente izatea. Eredu izan behar dugu.

## Gurasoek gehiago inplikatu beharko lukete heziketan?

Errespetu kontua da. Lehen gehiegizkoa zen. Umearendako beldurgarria ere bazen heldu bati berba egitea. Orain guztiz kontrakoa da. Ikusten duzu ume askok zela tratatzen duten ama, eta beldurgarria da. Ama horrela tratatzen duen ume batek zela tratatuko du beste edozein? Ez diogu garrantziarik ematen erabiltzen dugun hizkerari. **Tontoa zara?** Esaten diogu. **Edo Ez egin negarrik!** Askatasuna ematen diegu, baina tontoak direla eta ez sentitzeko esaten diegu. Ez dugu kontrolatzen zer esaten dugun.

## 2002an ADAHIGI elkarte sortu zenuen. Zergatik?

Beste bi lankidek eta nik kabinetea geneukan Donostian. Behin, Bizkaiko arreta gabeziaren elkartearen hitzaldi batera joan ginen. Harrituta geratu ginen. Zenbat guraso etorri ziren, eta zenbat behar zeuden. Bertan zeuden ama pare planteatu ziguten ea zergatik ez genuen elkarte sortzen Gipuzkoan. Eta guraso horiei laguntza eskaini eta guraso terapia egiten hasi ginen. Ordutik hona, beharrak ez dira aldatu. Diagnostikoak egiten dira, eta tratamendu farmakologikoak ematen dira, eta listo. Tratamendu psikopedagogikorik ez dago, eta arreta gabezia nahasmena duten umeen gurasoek ez dakite nora jo. Bestelako gaitz psikiko batzuekin ere gertatzen da. Agifes dago, adibidez, halakoetarako. Gizartean osasun mentalarrekin lotutako hutsunea dago. Zentzu horretan, Atxolin Guraso Elkarteari eskerrak eman nahiko nizkieke Soraluzen hitzaldia antolatzearen. Ze gure helburua ahalik eta guraso gehienei eskaintzea laguntza elkartearen bitartez.

## Nahasmen hori ematen da 25 umetatik baten. Zela antzematen da?

Batez ere ikastetxean. Antzematen da umearen portaeraren bitartez. Besteek hartzen ez duten bidea hartzen du. Baina 6-7 urte aurretik ezin da ondo diagnostikatu. Irakurri eta idazteko gutxieneko maila izan behar du, gaitasuna zenbaterainokoa duen ikusteko. **Zelako portaera dauka arreta gabezia duen ume batek?** Urtean 300 egunetan gauza bera egiten dugu: esnatu, gosaldtu, dutxatu, jantzi... hori egiteko egunero umearen atzetik ibili beharra badago, orduan piztu behar da alerta. Halako ume bati 15 bider esan behar zaio gauza bera. Badirudi ez dutela kasurik egiten. Gainera, garrasi egiten bazaio, eta berak ez badu zure haserrea ulertzen, hor ere alerta piztu behar da.

## Nahasmen neurobiologikoa izanda, hori bideratzea da gakoa, ezta?

Bai, izan ere, hori da umearen nortasuna. Hori garbi izanez gero, gure ikuspuntua aldatu egiten da, eta umea berehala konturatuko da. Beste kontu bat da berak ikasi egin behar duela bere portaera aldatu egin behar duela. Berdin-berdin erakutsi beharko zaio gizartearen arauak segitu behar dituela. Eta hori umearendako ahalegin izugarrizkoa da. Ze botikak egiten duena da umeari zentratzen lagundu, baina ez dio erakusten portaera aldatzen. Hori guk egin behar dugu.


## Susmoren bat izanez gero, zela jokatu behar da?

Laguntza eskatu. Asko kostatzen zaigu. Galdetu. Pazientzia izan. Eta batez ere, umorez hartu.

**“Umeendako mugak beharrezkoak dira eta uste dut pasatu garela heziketa oso zorrotzetik beste muturrera, eta hori ez da ona, nire ustez”**

GURUTZE AGIRRE





## Plazara!

ARGAZKIA: EGOITZ UNAMUNO  
 TESTUA: ETZOZI LARRAÑAGA

Eskuekin triangelu bat irudikatu dugu. Keinu erraz bat, edozeinek egiteko modukoa. Historikoki aztertuz gero, nazien kontzentrazio esparruetaraino iritsi gaitezke. Edo, beste batzuentzat, bagina edo umetokia irudikatzen duen ikurra da, feministok urteetan erabili izan duguna.

Baina, oraingoan, herritar andana izan da eskuak buruen gainetik altxatu dituen, berdintasunaren izenean. Oilo-ipurdia eta korapiloa eztarrian.

Pentsiodunak ere plazara atera dira egunotan, tartean, emakumeak; hileroko pentsioan hamarkadetako lan ikusezina islatuta ikusten ez dutenak. Zuentzat, bereziki, nire babesa.

Garaipena gurea izango da.



# Apirilaren 3tik, anbulatorioko kontsultak moduluetan emango dira



Moduluak ipintzeko oinarriak egokitzen ibili dira azken egunotan.

Anbulatorioko igogailua aldatu eta berria ipini behar du Osakidetzak; igogailu hidraulikoa dago orain eta haren lekuan igogailu elektrikoak ipini behar dute, oraingoa baino zabalagoa. Bi hilabete eta erdi iraungo dute lanek eta bien bitartean, anbulatorioko lehen solairutik goiko solairuetara arte dauden zerbitzu-kontsulta gehienak modulutan emango dituzte (Plaza Zaharrean), pare bat izan ezik: Emagin zerbitzua Elgoibarko anbulatorioan izango da eta Ginekologia zerbitzua, berriz, Eibarkoan.

## Lekurik ez guztiendako

“Kontsulta guztiak ez dira kabitzen ipiniko diren moduluetan. Horregatik zerbitzu batzuk eman beharko dira Soraluzetik kanpo. Gainontzeko zerbitzuei dagokienez (medikuak, erizainak eta pediatria), saiatuko gara guztiak ere goizeko txandan mantentzen, 08:00etatik 15:00etara, hain zuzen ere. Hala ere, aldaketak gerta daitezke noiznahi”, adierazi du Olatz Altunak Soraluzeko unitateko arduradunak.

Herritarrei dagokien arreta zerbitzuak, berriz, horrek bai, anbulatorioko sarreran segituko du.

## Irisgarritasuna bermatzeko

Egunotan ibili dira Plaza Zaharreko karpa kendu eta ingurua egokitzen moduluak bertan ipini ahal izateko. Besteak beste, hormigoia bota dute moduluen oinarri gisa.

Moduluak ipini ondoren, berriz, argindarraren, uraren eta ur zikinaren instalazioak prestatzen hasiko dira. Horiek guztiak bukatzean kontsulta guztiak moduluetara pasako dituzte. Helburua da apirilaren 3an hastea kontsultak moduluetan ematen, “baina baliteke aldaketaren bat edo egokitzapenen bat egin behar izatea, bai epeetan eta baita zerbitzuetan ere; bereziki, Aste Santua dagoelako tartean”, adierazi dute Soraluzeko unitateak.

Moduluak Plaza Zaharrean kokatzearen zergatia, berriz, bertako erabiltzaileentzat irisgarritasuna bermatzea da, Udaletik esplikatuakoaren arabera; kontuan izanda pertsona nagusiak direla anbulatorioa gehien erabiltzen dutenak.

## Bihotz-Biriketako Berpiztea egin ahal izateko baliabideak

Bihotza berpizten laguntzeko sei desfibriladore ditu Soraluzek. Itxaropena elkarterako erosi du azkena Udalak. Azken horrekin eta guztira 12.000 euro inguruko inbertsioa eginda, udalerriko sei puntutan daude desfibriladoreak: kiroldegian, Eguneko Zentroan, Udaltzaingoa, Mesedeetako egoitzan, Eoziko Futbol Zelaian eta datozen asteotan Itxaropena elkartean ere jarriko dute.

## Ikastaroak

Desfibriladoreak erostez aparte, Bihotz-Biriketako Berpiztea egin ahal izateko hainbat ikastaro egin dituzte, besteak beste, merkatariek, udaleko langileek eta Sora Futbol Taldearen bueltan dabiltzan langileek. Hurrengo ikastaroa apirilean egingo dute Itxaropena elkartean.

Ikastaro horietan Udalak erositako manikiak baliatuta, Bihotz-Biriketako Berpiztea egiteko teoria, eskuzko teknikak eta desfibriladorea zela erabiltzen den erakutsi diete bertaratutakoei anbulatorioko Lourdes Letona eta Ana Zubiaurre medikuek, SOS Deiakeko ordezkariak eta Udaltzaingoko kideek; gutxieneko jakintzarekin laguntasun handia eman ahal delako.

Orain arteko ikastaroak eginda, orain, aztertzen ari dira ikastetxeetan ikastaro bera ematea eta herritarrentzako ere beste ikastaro bat antolatzea.



# Txakurrendako parkea egokituko dute Atxurin



Atxuriko parkean, Mesedeetako egoitzaren azpiko aldean, herritar bat txakurrak paseatzen.

Atxuriko parkeko goiko zatian, eskuma aldean, txakurrendako parkea egokituko du Soraluzeko Udalak. 500 m<sup>2</sup>ko gunea da berau eta datozen asteotan egingo dituzte egokitzapen-lanak: “Materiala gertu dago. Txakurrek salto-eta egiteko tresnak ipiniko dira, eta, jakina, kakak batzeko beharrezko guztia. 3.000 euroko inbertsioa eginda, Eibarko *Herreria Puritok* egingo ditu lanok. Une honetan inguruak hesituta dago, eguraldia hobetu eta lanak hasteko zain. Edozein modutan, epe motzean hasiko dira lanak” jakinarazi du Iker Aldazabal alkateak.

## 300 euroko isuna

Aldazabalek emandako xehetasunen arabera, txakurrak ezin dira udalerrri barruan solte ibili, hori arautzen duen legearen arabera. Gainera, ordenantza berak dio txakur-kakak batu egin behar direla. Baina, sarri ordenantza ez da errespetatzen, ez kasu batean ezta bestean ere. Horren adierazle dira Udalak zortzi txakur-jabeei zabaldu dizkien espediente zigortzaileak. 300 bat euroko isuna jarri diete txakurra solte eramatearren edo txakur-kakak ez batzearren.

## Solte ibiltzeko


Alkateak esplikatu duenez, Soraluzeko Udalean txakur arriskutsuak dituztenen erregistroa dago, legeak hala agintzen duelako. Hori baliatuta, “legealdiaren hasieran txakur arriskutsuen jabeei jakinarazi zitzairen betebeharrak dutela txakurrak lotuta eta muturrekoarekin eramatea, legearen arabera. Kontua da herriaren kexuak egon zirela zentzu horretan, eta erregistratuta dauden txakurren jabeei legeak dioenaren berri eman genien. Haiek erantzun zuten, besteak beste, herri-mailan ez dagoela txakurrak solte ibiltzeko gunerik. Hori kontuan hartuta, Atxuriko igogailuko lanak hasi genituenean hango esparruaz jabetu ginen: lagatako gunea da, publikoa eta sasiz beteta zegoena. Bertan txakurrendako parkea egokitzea pentsatu genuen, gunea berreskuratzeaz aparte, txakur jabe horien eskaera aintzat hartzeko. Ze han txakurrak solte ibili ahal izango dira”, esplikatu du.

Txakur arriskutsuez aparte, gainontzeko txakurrek ere lotuta ibili behar dute udalerrian. Aldiz, ez dute derrigorrezkoa muturrekoa eramatea.

## 500 soraluzetar Elgoibarrera, giza katea osatzeko

Ekainaren 10ean, Gasteiz, Donostia eta Bilbo lotuko dituen giza katea antolatzen dihardu Gure Esku Dago ekimenak. 201,9 kilometro izango ditu eta 100.000 lagun beharko dira berau osatzeko. Herriz herri dabilta ekimena aurkezten eta Soraluzen ere hala egin dute. Izan ere, giza kate horrek ez du Soraluze zeharkatuko, baina Soraluzek bere kilometroa izango du. Oraingoan Elgoibarren da hitzordua. 500 soraluzetarren artean beteko da kilometroa.

## Usoak uxatzeko hontza



“Ea benetan beldurtzen dituen”, dio Iker Aldazabal alkateak martxoaren erdialdetik ipinita dagoen plastikozko gauerdiko mozoloari buruz galdetuta. *Txoriek Uxatzeko Hontza* du izena produktuak eta txoriei kalte egin barik haiek uxatzeko erabiltzen da, berau ikustean txoriek alde egiten dute-eta.

“Proba moduan ipini dut. Abade etxe inguruan uso mordoia egoten dira, eta lo egitera etortzen dira. Ea funtzionatzen duen, eta funtzionatzen badu aukera legoke beste leku batzuetan ere ipintzeko”, azaldu du hark.

# Plaentxi Herri Eskola bullyingik gabeko gunea izan dadin lanketa berezia



Plaentxi Herri Eskolako ikasleak eta irakasleak bullying-a baztertzeko duen pankartaren atzean.

“Hezkuntzaren ardatz nagusia pertsona bakoitzak bere buruarekiko eta bestekiko harreman positiboa lortzea da, batez ere, berdintasunari, elkartasunari, elkarrekiko errespetuari eta indarkeriarik ezaren balioei dagokionez. Guztion eskubidea da errespetatuak izatea eta eskolara lasai etortzeko aukera izatea”. Hori abiapuntu, eta bertako zuzendaria den Arantza Mataren

berbek diotena bermatzeko, *Gure Eskola Bullyingik Gabeko Gunea* izan dadin lanketa berezia egiten dihardute, ikasleak lagun.

## Ekitaldi esanguratsua

Hala, besteak beste, martxoaren 16an ekitaldi esanguratsua egin zuten ikastetxean.

Kantuak, dantzak eta antzerkia lagun, jazarpen egoerak edo bullyinga baztertu egin behar dela

partekatatu zuten ordu eta erdiko ekitaldian. Bukaeran, *bullying*-aren kontrako mezua zuen pankartaren atzean familia argazkia atera zuten guztiak batera, eta jakinarazi zuten hurrengo erronka dela pankartak diotenarekin bat datorren logoa sortzea, eskolarako.

## Laguntza eta orientazioa

*Bizikasi* ekimenaren baitan ari dira garatzen *bullying*aren kontrako lanketa. *Bizikasiren* lehentasunezko helburua da “ikastetxea bihurtzea”. Hori horrela, *Bizikasik*, besteak beste, prebentzio neurriak hartuko ditu, kontuan hartuta “jazarpena pairatzen duenak egoera larria bizi duela eta babesa eta laguntza bermatu behar zaiela, baina jazarpena egiten duenak ere agerian uzten du orientazio beharra duela, jarrera jazarlea utz dezan”. Azken batean ekimenaren helburua da ikastetxea jazarpenik gabeko eremu bilakatzea, hezkuntza-komunitate osoa inplikatuz.

## Litekeena da zianuroaren isuria epaitegietara eramatea

Joan den otsailaren 12an, ibaian gertatutako isuriaren gaineko ikerketak zabalik segitzen du.

Gipuzkoako Foru Aldundiak *Pil-pilean* herri komunikabideari jakinarazi dionez, Ertzaintza, Ura Euskal Uraren Agentzia eta Gipuzkoako Foru Aldundia elkarlanean ari dira zeregin horretan.

### Epaitegietara

Diputaziotik aurreratutakoaren arabera, ikusitakoa ikusita,

“litekeena da kontua epaitegietara eramatea. Orain azken frogak biltzen dabilta, epaitegietan salaketa aurkezteko”. Izan ere, epaitegietara jotzeko froga sendoak behar dira aurkeztu.

### Zantzuak badituzte

Edozein modutan, Diputaziotik aditzera eman dute dagoeneko susmatzen dutela zein izan zen zianuro isuriaren jatorria, zantzuak badituztela, baina hori “argi ikusi” behar dela gaia epaitegira eraman

ahal izateko, eta horretan dihardutela.

### Analisien emaitzen zain

Bestalde, hilda azaldu ziren arrainen batzuk zein ubarroiaren mostrak anaizatzerara bidali zituzten, toxikoak aztertzen dituen laborategi espezializatu batera. Bada, horren gainean galdetuta, esplikatu dute emaitzak ez dira oraindik iritsi; Gipuzkoako Foru Aldundiaren arabera, halako kontuek luze jotzen dute.

# Naia Olaizola: “Herria barrutik ezagutzen nabil”



Naia Olaizola aparejadorea udaletxeko bulegoan.

Naia Olaizola Barajuen (Ermua, 1972) da Soralezeko Udaleko aparejadore berria joan den martxoaren 5az geroztik. Haren aurretik egon den Mikel Saezen lekua betetzera etorri da ermuarra, Saez Arabako Foru Aldundira joan da-eta lanera. Mendaroko daletxean zeukan aparejadore postua utzi du Olaizolak Soralezera etortzeko.

## Nolatan Soralezera?

Zerrendan sartuta nengoen. Mikel Saez joan egin behar zela-eta, deitu egin zidaten eta baietz esan nuen. Martxoaren 5etik nago hemen, egunero 08:00etatik 15:00etara, eta, hilean behin, arratsaldean, Hirigintza eta Obretako batzordean.

## Zer moduz hasierako egunak?

Hemengo trikimailuak ikasten nabil oraindik. Ze, nahiz eta Mendaroko Udaletxean lan bera egin (baimenak, obrak eta halakoak) herri bakoitzak bere ezaugarriak ditu eta ikasi egin behar dira.

## Eta zein da inpresioa?

Oso ona. Oraindik ez dut jende asko ezagutzen herrian, baina udaletxe

barruko jendearekin oso gustura nago.

## Ezagutzen zenuen Soraluzeko lehenagotik?

Lagunekin egonda nengoen, baina orain herria barrutik ezagutzen nabil, baserri bideak eta halakoak.

## Mendarotik Soralezera etorri zara; eta lehenago non ibili zara?

Bai. Mendaron bi urtean ibili naiz aparejadore, bertako udaletxean. Lehenago, Legazpin hainbat hilaite egin nituen, eta hori baino lehenago autonomo bezala ibili naiz. 18 urte inguruko ibilbidea daramat aparejadore moduan.


## Hortaz, ikasketaz ere aparejadore zara?

Bai, Arkitekto Tekniko Aparejadore ikasketak ditut. A Coruñan egin nituen ikasketak, neure sasoiari oraindik Donostian ez zegoelako horrelakorik.

## Gainera, emakumea...

Bai, baina gero eta emakume aparejadore gehiago dago. Egoera badoa aldatzen. Mendaron ere nire aurreko aparejadore emakumea zen, adibidez.

## Eskailerak kendu egingo dituzte



Alejandro Calonge kaleko 1., 2. eta 3. atarien pareko eskailerak kendu egingo dituzte irisgarritasuna bermatzeko. Eskailerak kenduta, arrapala ipiniko dute haien ordean. Gabolatseko urbanizazio-lanak egiten diharduen Construcciones Morga enpresak egingo ditu lan horiek ere, behin Gabolatsekoak bukatuta. 20.000 euro inguruko inbertsioa egingo dute lanotan.

## Bizikleten gunean gailu berriak



Bidegorriaren hasieran dagoen bizikletak garbitzeko gunean erreminta berriak ipini ditu Soralezeko Udalak: erruberendako puzgailua eta bizikletak konpontzeko erreminta batzuk. Iazko uztailean egokitu zuen Udalak gune hori; hasiera batean, bizikletak garbitzeko gailuekin. “Aipatutako guneak erabiltzaileen artean izan duen harrera ona eta errespetuzko erabilera ikusita” tresna berriekin hornitu dute.

# Adinekoentzat lan egingo duen adituen eta adinekoen batzordea sortu dute



Plaentxiako Pertsona Nagusiak Ahalduentzeko Batzordea osatzen duten kideetako batzuk.

Plaentxiako Pertsona Nagusiak Ahalduentzeko Batzordea sortu da Soraluzen.

Alkarri elkarteak koordinatutako prozesu parte-hartzailea baliatuta sortu da, eta berori osatzen dute Alkarrik berak, Mesedeetako egoitzak, Itxaropena Erretiratuen Elkarreak eta Soraluzeko Eguneko Zentroak. Juan Fernandezek, Alkarriko koordinatzaileak, zera adierazi du: “Nahi ditugu proiektu berriak landu, pertsona nagusien ingurukoak baina pertsona nagusiekin. Guretzat beharrezkoa zen erakunde guztiek eta boluntarioek parte hartzea eta nagusiak aintzat hartzea. Adibidez, Pertsona Nagusien Astea antolatzerako orduan zer eta zela egin erabaki dute erretiratuek eurek eta Eguneko Zentrotik eta egoitzatik joandako bi ordezkariak. Azken batean teknikariak laguntzera, proposamenak egitera eta prozesuak bideratzera joango gara, besterik ez. Gainerako guztia eurek (nagusiek) erabakiko dute”.

## Elkar ezagutzen

Hilean behin elkartzen da batzordea, laugarren bilera egin dute dagoeneko eta Pertsona

Nagusien Bigarren Astea prestatuz hasi dute ibilbidea. “Hori ondo irteten bazaigu, ondoren beste proiektu batzuk ere egingo ditugu. Orain arteko batzarrak, berriz, txandaka egin ditugu zentro guztietan: Alkarri, Egoitzan, Eguneko Zentroan eta Itxaropena elkartean. Inportantea zen hori horrela egitea, zentro edo elkarte bakoitzeko partaideek beste zentroak eta partaideak eurak ezagutzeko. Azken batean, Alkarri ere horretarako sortu zen: denon artean prozesuak lantzeko, eta batzorde hau sortzea izan da Alkarriren lehen helburua. Berau sortzea lorpena da guretzat”.

## Nagusien bigarren astea

Fernandezek aurreratutakoaren arabera, apirilaren 23tik 27ra egingo dute aurtengo Pertsona Nagusien Bigarren Astea. Ekitaldiak zehazten ari dira oraindik, baina adibide modura, bakardadearen gaineko dokumentala proiektatu eta horren inguruko mahai-ingurua egingo dute; aurretiazko azken borondateen (*voluntades anticipadas*) gaia landuko da; lehen sorospenak landuko dituzte; sukaldaritza, osasuna eta historia

uztartzeko jardunaldiak egingo dituzte; pintxo-dastatzea tarteko dela eta Eguneko Zentroan eta Mesedeetako Egoitzan ate irekiak egingo dituzte, herritarrek bertatik bertara ezagutu ditzaten bi zentroak. Ate irekiak egiteaz batera, egun berean bestelako ekitaldiak ere egingo dituzte zentro bietan.

## Nagusi asko udalerrian

Soraluzeko bizilagunen %23 pertsona nagusiak dira, EUSTATEN 2017ko datuen arabera. Bestela esanda, lau pertsonatik bat nagusia da. Euskal Autonomia Erkidegoko batzbestekoa baino handiagoa da Soraluzeko kopurua. Izan ere, Estatistikaren Institutu Nazionalaren aurreikuspenaren arabera, 2020rako espero da %20 gainditzea, eta Soraluzen dagoeneko gaindituta dago kopurua.

Horrez aparte, 80 urtetik gorako 200 herritar baino gehiago daude gaur egun.

## Zahartzaro aktiboa

Munduko Osasunaren Erakundeak zahartzaro aktiboaren garrantzia eta haren onurak nabarmendu ditu eta Pertsona Nagusien Eskubideen Gutunean adierazten da, besteak beste, nagusiendako baldintza egokiak sortu behar direla nagusiek euren eskubideak garatu ditzaten eta euren dagozkien gaiak buruzko erabakiak euren zuzenean har ditzaten.

Bada, horiek guztiak kontuan hartuta, Soraluzen dagoen pertsona nagusi kopurua handia dela jakinda bultzatu du Alkarrik Plaentxiako Pertsona Nagusiak Ahalduentzeko Batzordearen sorrera.

Aita Menniren laguntzarekin landu dute ekimena.

# Herriko euskaltzaleen elkarte da Pil-pilean



Elkarteko lankideak.

Izanari izena egokituz, hemendik aurrera Sorraluzeko euskaltzaleen elkarte izango da Pil-pilean. Halaxe erabaki zuten elkarteko bazkideek martxoaren 3an egin zuten Batzar Orokorrean. Elkarte sortu zenetik gaur egunera, *kultura*, *euskara* edo *euskaldunon* izendapenak jaso izan ditu, eta *euskaltzaleen*-a izango da hemendik aurrera.

## Izaera anitza

Arianne Unamunok, elkarteko lehendakariak, adierazi duenez: “Uste dugu *euskaltzaleen* elkarte izendapenak hobeto adierazten duela Pil-pileanen izaera, horixe baita elkartearen bueltan gabiltzanok batzen gaituena: euskaltzalea izatea. Gaur egun, askotariko herritarrek parte hartzen dute elkarteak hizkuntza biziberritzeko martxan dituen ekimenetan (Berbalaguna, Auzoko, Euskaraldia, komunikabideetako kolaboratzaileak, Gure elkartean be euskaraz bai...) eta garrantzitsua da izanean dugun aniztasun hori izenean ere islatzea; euskara delako batzen gaituena”.

## Inbertsioa administrazioan

Batzarrean adierazi zutenenez, “azken urteotan hazi egin da elkartearen jarduna: sentsibilizazio egitasmo eta tailerrak, Udal Ludoteka eta Gaztelekuaren kudeaketa osoa, Euskaraldia... Ondorioz, langile kopurua ere hazi egin da eta, gaur egun, hamabi pertsonak dihardugu kontratuean. Horrek eskatzen du kudeaketan ahalegin handia eta horregatik pertsona bat kontratatu dugu administrazio lanak egiteko”.

## Hiztunak aktibatzea helburu

Datozen hilabeteetan, hiztunak aktibatzea eta herritarren hizkuntza portaeretan eragitea izango da elkartearen lan-ildo nagusia, horretarako prestakuntza eskainiz. Ildo horretan, Euskaraldia izango da ekimenik nabarmenetakoa, baina ez bakarra; Ludotekan eta Gaztelekuan dinamika bereziak jarriko baitira martxan gaztetxoaren artean euskararen erabilera indartzeko. Bestetik, egun berezi bi ere antolatuko dira: Euskal Herriko Auzoko Eguna maiatzean, eta urriaren Kukumixoren 10. Urteurrenoko jaiak.

## Gazteak lanean hasten laguntzeko programa



Debegesa garapen agentziak Hazilan izeneko programaren bosgarren edizioa abian jarri du. Egitasmoa Debabarreneko 20 eta 44 urte bitarteko gazte langabeei zuzenduta dago, goi mailako heziketa zikloa edo unibertsitate ikasketak bukatuta dituztenei. Hain justu ere, gazte horiek laneratzea du helburu egitasmoak. Apirilean hasiko da eta ekainean bukatu.

## Prestakuntza pertsonalizatua

Parte-hartzaileek prestakuntza pertsonalizatua jasoko dute. Lehen fasean, gaitasun pertsonalak eta profesionalak hobetzeko trebakuntza jasoko dute, lanean hastea erraztuko dieten erreminten bitartez; horrekin batera, proiektuen kudeaketa arloko ezagutza eta trebezia landuko dute metodologia berritzaileen bidez.

Bigarren fasean, berriz, enpresetan praktikak egiteko aukera izango dute. Modu horretan, laneko errealitatea gertutik ezagutzeko aukera izango dute.

Apirilaren 11ra arte eman daiteke izena *debegesa.eus* webgunearen bitartez. Interesa dutenei programaren xehetasunak azaltzeko eta zalantzak argitzeko informazio-saioa egingo da apirilaren 10ean, 12:00etan, Debegesaren egoitzan.



## Marokoko gozogintza saioa egin zuten

Hizkuntza eta kultura elkartrukea oinarri, ia 20 lagun inguruk gozogintzan jardun zuten Lagun Maiteak elkarteak, Auzoko egitasmoaren eskutik. Marokoko errezetatatik abiatuta, pasta mordoxka egin zituzten, forma eta zapore askotakoak. Eta batez ere, gozo askoak, dastatu zituztenek azpimarratu moduan; izan ere, lanean jardun ondoren, guztien artean dastatu zituzten, etxeko txikiak lagun zituztela.

## Bizkaitarrak kale kantari

Erandiotik eta Astrabduatik etorrira, kale kantari jardun zuten 24 bizkaitarrek martxoaren 18an. Koldo Ariznabarreta eta Juango Eguren soraluzetarren bitartez etorri ziren bizkaitarrak Soroluzera. Kontatu zutenek, ohitura dute noizean behin herri eta kalez kale. "Normalean han inguruan ibiltzen gara, baina gustatzen zaigu leku eta jende berriak ezagutzera eta horregatik etorri gara".



## Gazteak eskiatzera

Joan den martxoaren 10 ean DBHko hainbat ikaslek eski irteera egin zuten La Lunada eski estaziora (Cantabria eta Burgos arteko mugan). Keixeta elkarteak antolatu zuen irteera eta guraso boluntarioen laguntzarekin egin zuten. Oso ondo ibili ziren: "Eski estazioa txikia zen, baina majo ibili ginen", kontatu dute. Bide batez, antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete guraso boluntario horiei, "euren laguntzarik gabe ez baitzen posible izango irteera egitea".



## Ibilaldi neurtua

Goiz pasa joan, eta Aretxabaleta-Urkuluko urtegia-elurzuloa-Mendiola-Aretxabaleta. Horixe izan zen Soroluzetik joandako 80 bat neska-mutikok eta gurasok joan den martxoaren 11n egin zuten ibilaldia. 9-10 kilometro inguru zituen ibilbideak. Gipuzkoako Eskolarteko Ibilaldi Neurtuen baitan Aretxabaletan egin zuten, hain justu ere, ibilaldi hori, Deba eskualdeko bestelako udalerrietatik bertaratutako taldeekin batera.

## Txistudentza eguna

Iazko etenaren ondoren, aurtan atzera ere egin zuten Txistudentza eguna Urrats Dantza Taldeko eta Txistulari taldeko kideek, martxoaren 18an. 20 bat lagun ibili diren kalez kale eta eguraldia lagun izan ez zuten arren, euren arteko zein udalerriko giroa majo edertu zuten euskal dantzak eginez. Ezustean, gainera, gonbidatu bereziak batu zitzaizkien, Bizkaitik Soroluzera kantuan egitera etorritako 20 lagun pasa. Eta kalejira ederra egin zuten guztien artean.



## Zuhaitz Eguna

100dik gora lagunek parte hartu zuten martxoaren 4an, Zuhaitz Egunean. 30 pago landara sartu zituzten Urkiazelai inguruan, Diputazioaren bitartez ekarritakoak. Pagoak sartzeko zuloak gertu zituzten bezperatik; haiek apur bat handitu zituzten gurasoen laguntzarekin eta aitzurrak eskuetan, neska-mutikoez jardun zuten, batik bat, pago-landaketan. Goiza borobiltzeko, mokadutxoa izan zuten Izai Aterpean.

## Emakumiok planto!

Lehenengo eta behin, zorionak danori. Aurtengo martxoak 8xa inoiz baino jendetsuagua izan da. Aurreko urtietatik ixa bikoitza, benetan zirrargarria. Horrek esanahi argi bat dauka. Gero eta gehixago gara planto esaten dogunak, honaino heldu gara, eta hemendik aurrera berdintasunerantz egingo dogula elkarrekin.

Betiko bidelagunez gain, beste jende pila bat gerturatu zintzen, garai berri bati bidia zabaltzen. Gaztieneri ongietorri, gurekin nahi zaitzuztegu. Ta hain gaztiak ez zarenontzat gure besarkada beruena, pentsio duinen aldeko borrokan zuekin egongo gara. Mobilizaziñuetan elkar ikusiko dogu. Bestalde, zapalkuntza bikoitz eta hirukoitzak jasotzen ditzuenekin be bagare: arrazializatuak, etorkinak, eta, orokorrean, anitzak. Gure aniztasuna zuenakin aberastuko dogu.

M8xan Plaza Berrixan eta herriko kalietan bizi izan ginuana ezin dogu hitzez azaldu. Bana gure azaletan grabatuta gelditzen da. Kaliak guriak egin ginuzen. Korner Morean zuen erronka jasotzen dogu, eta aurrera aterako dogu. Zuekin batera borrokatzeko prest gare. Indarrez bete gaitzuzue. Eskerrik asko Plaentxi!

**Korner Morea**

## Mugarik Gabeko Euskara. Ofizialtasuna!

Euskaldunok egunero pairatzen ditugu bigarren mailako hitzun izatearen mugak. Euskaraz bizi nahia hitzez eta ekintzaz mila modutara adierazi dugun arren, euskaldunok egunero entzuten ditugu "En español, por favor" edo "En français, s'il vous plaît" esaldiak, arbitroak txartel gorria aterako digunaren mehatxupean.

Herri gisa ere euskaraz bizitzea debekatzen zaigu. Ezin dugu euskararen hiztun-komunitatea egituratu eta ezin dugu erabaki

zeir-nolako hizkuntza-antolaketa izan nahi dugun. 155 artikulua euskararekin ere deklinatuko dute, euskaldunon aurka ekiteko erabiliko dute aurrera egingo dugun heinean.

Euskararen normalizazioan jauzia egiteko beharra dugu eta horretarako baldintzak daude. Azken hamarkadetan aurreratutakoa irabazpidean jartzeko unea dugu. Horretarako, ezinbestekoa izango dugu burujabetza. Burujabetza zein nolako hizkuntza-politika garatu nahi dugun erabaki eta indarrean jarri ahal izateko. Burujabetza Euskal Herriaren berreuskalduntzea azkartu eta bururaino eraman ahal izateko. Burujabetza kolektiboa herri gisa eta burujabetza indibiduala euskaldun aktibo gisa.

**Euskal Herrian Euskaraz**

[aldizkaria@pilpilean.eus](mailto:aldizkaria@pilpilean.eus)  
[helbidera bidali gutunak](#)

### HAUSNARKETA

## Zer iruditzen zaizu irakasleen greba?

Martxoan bi egunez egin dute greba irakaskuntza publikoko irakasleek. Batez beste %70eko jarraipena izan zuten protestek Sorraluzen, eskolan eta institutuan. Eta greba egun gehiago daude deituta apirilerako.



**Elene Alberdi**

Asko aldatu da gizartea. Berezitasun gehiago ditu, behar berriak, eta derrigorrez, baliabideak bideratu behar dira kalitatezko hezkuntza publikoa, inklusiboa, lortzeko. Hezkuntzari ez diogu "behar adina" garrantzia ematen. Eta oker gaude. Gure haurrek sortuko dute etorkizuneko gizartea. Oinarriak sendotu behar dira. Hazia behar bezala erein, "norbanakoaren gaitasunak" sustatuz, eta "ranking sistema" antzuak baztertuz.



**Niko Mendia**

Planteatzen diren eskariak bidezkoak dira, batez ere, ikasleen ratioak handitu direlako eta horrek eragiten duelako kalitatean. Baina uste dut grebak oso erosoak direla Jaurilaritzarendako, eta, oster, gure irudia okertzen dutela gurasoen artean. Ez dituzte ezagutzen murrizketek eragiten dituzten kalte konkretuak. Imajinazioa behar dugu protesta egiterakoan; esaterako, txostenak bidaltzeari uko egin...



ZIR(R)IKA

## Urban trail

eta guk egiten dugunari

ummm... urban trail?



zelan deitzen jako?

Egilea: P.G.



**Ainhoa  
Zubizarreta**

Azken urte hauetako Euskal Eskolak egindako grebak deseroso senti erazi naute. Deserosotasun hau, herri mailan dagoen desinformazioaren ondorio zuzena da. Irakasleen grebaren zergatiak ondorio zuzenak ditu gure seme-alaben etorkizunean eta horrek nire arreta merezi duela ziur nago. Horretarako irakasleen eta herriaren konplizitatea behar-beharrezkoa da.



**Iñaki  
Gerrickagoitia**

Azken urteotan, krisiaren aitzakiarekin, murrizketak egin dira arlo askotan, eta, gerora, Jaurlaritzak jarrera itxia erakutsi du negoziatzerako orduan. Sindikatuek egin dituzte saiakerak, baina jarrera itxi horrekin, ez da izan beste biderik greba egitea baino. Grebek jarraipen handia izan dute irakaslegoan, nahiz eta sindikatuen batasuna hausteak eragina izan duen. Eta horretan gaude.

PUNTUA



**Irati  
Trebiño**

## Bainak ortuan, ta sasoia danian!

Ederra da gure buruak beste leku batetik ikusteko aukera; orain, etorkina naiz Alemanian. Pribilegio batzuk dituen: Europarra, zuria, ikasketaduna... Alemana ikastera joaten naiz. Ikaskide gehienak ez dira europarrak, zuriak ere ez, gerratik ihesi etorri dira batzuk, bizitza duinago baten bila gehienak. Irakaslea bai, bertakoa, Alemania nolako den erakusten diguna. Eta lotsarik gabe botatzen digu atzerritar gehiegi dagoela Alemanian, trenean beltzaranak besterik ez dituela ikusten, edo gizon eta emakumeak berdina direla, gure herrialdeetan ez bezala. Korana emakumeentzat txarra dela, Korana inoiz irakurri ez badu ere, baina hori bai Martxoaren 8a ezkertiarren kontua baino ez ei da Alemanian bizi dut hau, baina Soraluze izan zitekeen,.

Ulertzen dut emakumeon borroka, baina... Erljio guztiak errespetatzen ditut, baina... Ez naiz arrazista, baina...

Bainak ortuan, ta sasoia danian! Bada ordua gure nagusikeria alde batera utzi eta "baina" horiei bere izenez deitzekoa, ditugun pribilegioez jabetu eta errespetuz eta elkartasunerako erabiltzekoa.



Soraluzeko zortzi pentsiodunek egoeraren irakurketa partekatu dute; Itxaropena elkartean izan zen berriketaldia.

## ERREPORTAJEA

# Tinko eutsiko diote

Kalean segituko dute eta tinko eutsiko diote euren aldarrikapenei. Hori oso argi dute, izan ere, bizi duten egoerarekin haserre, minduta eta gogaituta daude erretiratuak eta pentsiodunak. Urak gainezka egin zuen Espainiako Gobernuak pentsioen igoera iragarri eta igoera hori %0,25ekoa izango zela jakin zutenean. Hori “lotsagarria” dela iruditu eta harrezkero, Soraluzeko pentsiodunak ere kalean daude.

ARGAZKIAK: **UBANE MADERA ETA TXARO LETE** TESTUA: **UBANE MADERA**

Urtarrilaren 15az geroztik, astelehenero-astelehenero egin dute protesta plazan. Taldetxoa hasi eta apurka-apurka handitzen eta gorpuzten joan da Plaza Berriko elkarretaratzea eta dagoeneko 10. elkarretaratzea egin dute martxoaren 19an. Heldu eta gazte batzuk ere hasita daude ekimenarekin bat egiten, pentsiodunen ustez askoz ere gehiago izan beharko liratekeen arren.

Plaza Berrian elkartu eta ordu laurdenez “pentsio duina” aldarrikatzen dute, Espainiako Gobernuak agindutako %0,25eko igoera “lotsagarria” dela salatzeaz batera, pankarta eskuetan dutela. Soraluzen ez ezik,

Eibarren ere izan ziren joan den zapatuan beste 3.000 lagunekin batera (martxoaren 17an), baita Donostian ere otsailaren 16an; eta iragarri dute datorren astelehenean, martxoaren 26an Soraluzen manifestazio zaratatsua egingo dutela.

### Ez da bidezkoa

Ikusten den moduan, bada, eta eurek ozen diotenez, ez dute amore emateko batera asmorik, uste dutelako bizi duten egoera erabat “bidegabea” dela. Eta bizitza osoa lanean eman ondoren, “dagokiena” aldarrikatzen dute,



salatuz, bereziki, dirua egon badagoela, edo bazegoela. Ezen agintean egon den “lapur askok” herritarren zergetatik batutako milioi mordo bereganatu ditu, eta, gainera, Espainiako Gobernuak pentsioetarako ez baina bestelako zeregin batzuetarako baliatu du pentsioen kutxan zegoen dirua. Halaber, orain protestan ari diren asko damu dira salatutako hori urtetan gertatu arren, orain arte ez direlako “esnatu” eta ez dutelako protestarik egin.

Baina hasi dira. Une honetan, eta Martxoaren 8ko aldarrikapenak kontuan hartu barik, pentsiodunek kaleak hartu dituzte. Bandera barik, alderdi barik, sindikatu barik, batasuna ikur eta sare sozialak lagun dituztela.

### Aldatu beharrekoak

Pentsioen igoera duina (KPIren arabera), pentsioa bera ere duina izatea (1.000-1.080 eurokoa) eta herritar moduan dagokiena aldarrikatzeaz aparte, pentsioen sisteman aldatu beharreko asko dagoela diote.

Gaiari buruz berba egiteko udalerriko zortzi pentsiodunek euren iritzia eta hausnarketak gurekin partekatu dituzte, Itxaropena erretiratuen elkarteko mahaiaren bueltan. “Bidezkoa da kotizazioaren arabera pentsioa. Ezin dute berdin kobratu 40 urtez kotizatzen ibili den pertsona batek edo 20 urtez kotizatzen ibili den batek”, dio Jose Luis Perezek.

“Baina non geratzen dira orduan zaintzengatik lanean etenaldia egin behar izan duten emakumezkoen (ze emakumeak dira ia guztiak) pentsioak?”, galdetu du mahai-inguru horretan Mari Karmen Zarrabek.

“A, jakina, ez da bidezkoa eta ezta duina ere zaintzak kontuan ez hartzea. Nire uzten Dependenzia Legeari esker mendekotasuna duten pertsonak zaintzeagatik



1. Hainbat soraluzetar Eibarren, Soraluzetik eramandako pankartarekin..
2. Eibarko manifestaziora joandako batzuek argazkia atera zuten Untzaga plazan.

diru-laguntza ematen den moduan, umeen zaintzengatik ere antzerako zerbait egin beharko litzateke”, adierazi du Perezek, eta gainontzeko berbalagun guztiek babestu dute hark esandakoa.

“Bidezkoa da pentsioak urtez urte KPIren arabera igotzea eta ez %0,25a”, gaineratu du Araceli Maiztegi. Izan ere, “berdin-berdin ordaindu behar ditut argindarra, ura... Gastu horiek bai, gastu horiek gora eta gora doaz, izugarri”, babestu du Maiztegi esandakoa Santiaga Hurtadok. “Eta pentsioak KPIren arabera ez igotzea dirua kentzea da azken batean”, dio Mari Karmen Zarrabek; “gainera, urteotan igo ez dituzten atzerapenak ordaindu egin beharko lizkigukete”.

### Etorkizuna beltz

Eskaerekin batera, salaketak ere egin dituzte pentsiodunek: “Krisia batzuetarako izan da bakarrik, beste batzuetarako aberastasuna etorri da” gehitu du Hilaria Diazek. “Zenbat lapur!”, dio, berriz, Maiztegi. “Gainera, orain, Rajoy jaunak ez ditu gazteak aintzat hartzen. Ez dute lanik, eta gurasook mantendu egin behar ditugu; eurak eta baita gure lobak ere”, ekarri du gogora Diazek.

Hari horri segika, mahaiaren bueltan elkartutako guztiek azpimarratu dute etorkizuneko pentsioek oraingoek baino ziurgabetasun handiagoa dutela, biztanleria zahartze ari delako, oraingo soldatak txikiak direlako, lan kaskarrak edo lanik eza kontuan hartu behar delako. “Orain zerbait lortzen bada ere, datozenei esango nieke ez lokartzeko, eta ez ahazteko, adi segitzeko. Ze etorkizunean ezin da pentsiorik izan oraingo sistema aldatzen ez bada”, diote tñko.

Halakoak eta beste partekatu zituzten gurekin; segidan dituzue jasota hausnarketok, xeheago.

# Egoeraren irakurketa eta iritziak



**Luis Mari Kortabarria**  
SORALUZE, 1952

## 44 urtean ibili da lanean.

"Arazo honen jatorria ez da krisia, pentsioen kutzako dirua bestelako gauza batzuetarako baliatu izana baino. Horretan ari dira azken 5-6 urteotan, baina orain arte ez da ezer gertatu isilik egon garelako".

## Erosteko ahalmena galdu

Urte hauetan %9,5eko erosteko ahalmena galdu dugu. Nik eskatuko

nuke orain arte protestan ibili garenok elkar babesten segi dezagula, harik eta Kontsumoaren Prezio Indizearen igoera lortu arte".

## Aurrekontu orokorretan

"Bestalde, uste dut aurrekontu orokorretan sartu beharko luketela pentsioen igoera, beste alor batzuekin egiten duten modura: Defentsa..."



**Araceli Maiztegi**  
SORALUZE, 1942

## 27 urte lanean autonomo modura, baina dendan bizitza osoan lan egindakoa da.

"Bizitza garestitzen joan da urte hauetan guztietan, baina guri ez digute pentsioa maila berean igo. Eta, orain, iadanik, oso agerikoa da aldea: hau da, bizitza-maila asko igo da eta gure pentsioak ez. Orain, asko igartzen da desberdintasun hori"

## Lapur mordo

"Gainera, hor goian egon diren agintari askok dirua lapurtu egin dute eta gero esaten dute ez dagoela dirurik pentsioendako. Zenbat lapur dagoen!"

Hortaz gainera, pentsiodunok ere ordaintzen dugu IRPFa, beraz, diru hori guztia nora doa?. Hori pentsioetarako erabili beharko litzatekeela uste dut"



**Hilaria Diaz**  
GALIZA, 1938

## Lau urtez tailer batean lanean ibili eta gero, hura utzi egin behar izan zuen seme-alabak hazteko. Bizitza osoa ibili da lanean, etxekoekin.

"Seme-alabak jaio zirenean, nik edo senarrak lanari laga egin behar genion, lehen seme-alabak norberak hazi behar izaten zituen-eta, beraz, nik laga nion lanari. Lehenago tailer batean egin nuen lan, baina han lau urte bakarrik egin

nuenez, orain, ez didate ezertxo ere ematen"

## Lanpostu kaskarrak

"Gainera, orain Rajoy jaunak gazteak ere ez ditu aintzat hartzen. Gazteek ez dute lanik, eta dutenek oso gutxi kobratzen dute eta gurasoek lagundu egin behar diegu, eurei eta gure lobei. Hori ere kontuan hartu beharko lukete".



**Teogenes Ruiz**  
CANTABRIA, 1958

## 14 urte zituela hasi zen lanean; aseguratuta, berriz, 16 urte zituenetik egon zen. 27 urtez ibili da lanean.

"Eskatuko nieke atzetik datozei gure protesta babesteko eta gu laguntzeko. Izan ere, gure pentsioen alde gabiltza borrokan, baina baita etorkizuneko pentsioen alde ere. Etorkizuneko pentsioak bermatzeko aldatu behar dena sistema bera da".

## Sistema aldatu behar da

Bestalde, orain dagoen langile kopuruarekin eta duten soldata-mailarekin ezin izango da etorkizunean pentsiorik egon, kontuak ez dira ongi ateratzean. Argi dago: sistema da aldatu beharrekoa. Guri dagokigunez, berriz, gure aldetik, mobilizazioetan segituko dugu. Gainera, ez dugu beste zerezirik".



**Santiaga Hurtado**  
EXTREMADURA, 1938

**10-18 urte bitartean soroan egin zuen lan, Eta zazpi urtez Eibarren. Beraz, 25 urtez ibili da lanean. Gero seme-alabak hazi zituen.**

“Ez da bidezkoa. Alarguna naiz. Senarrak bizitza osoa lanean eta kotizatzen eman zuen, eta hil zenean haren pentsioaren erdia eman didate. Ez dut beste diru-sarrerarik, kontratu barik ibili naiz-eta lanean, baina, berdin ordaindu behar ditut

argindarra, ura... Eta horiek gora eta gora doaz, izugarri. Gainera, ahal dudan guztietan lobei lagundu egiten diet. Eta 714 euro kobratzen ditut. Ni moldatzen naiz, berogailua ipini barik mantarekin tapatuz, trenbidean paseatuz (doan delako)... Baina ez da bidezkoa. Txuleta bat ere ezin jan! Eskatuko nuke bikotea hiltzen denean, alargunari haren pentsio osoa ematea, eta ez erdia”.



**Jose Luis Perez**  
VALLADOLID, 1957

**30 urtez lanean. 18 urte dela da pentsioduna.**

“Krisia hasi zenetik zenbat jende geratu da lan barik, soldata barik... Zer gertatuko da etorkizuneko pentsioekin? Lehenagoko gobernuak hasi zen %0,25eko igoera aplikatzen KPlaren igoera aplikatu beharrean, eta, harrezkero, eutsi egin diote horri. Pentsiodun askok krisi garaian ez dute gastatu, beldur

handia zutelako, txikleka tiratuta heltzen dira asko hilabete amaierara. Alderdi eta sindikatu bat bera ere ez dago garbi. Gazteei esango nieke etorkizunera ere begiratzeko. Eta orain zerbait lortzen bada ere, datozenei esango nieke ez lokartzeko, eta ez ahazteko, adi segitzeko. Ze etorkizunean ezin da pentsiorik izan sistema aldatzen ez bada”.



**Mari Carmen Zarrabe**  
SORALUZE

**27 urtez ibili da lanean etxetik kanpo; horrez aparte, bera arduratu da etxeko zereginetaz .**

“Gobernuak bere momentuan bankari eman zion babesak, adibidez, eta, orain, ez du dirurik pentsioetarako. Kaltetuenak maila ertain-baxuena duginok gara. Besteek beti asmatzen dute trikimailuren bat tranpa egiteko. Orain pentsioa %0,25 igoko dutela

diote, eta non geratuko dira 7-8 urte hauetan ordaindu ez dizkiguten igoerak? Sikiera horiek ordaindu egin beharko lizkigukete. Dagokiguna da, ez besterik. Jakina, mobilizazioekin segituko dugu, infinitora arte, ze orain arte lo egon gara, berandu esnatu gara. Nik eskatuko nuke guri pentsioak igotzea euren soldata igotzen duten bezain beste”.



**Avelino Ramos**  
LUGO, 1935

**35 urtez ibili da lanean.**

“Nik adibidez, 55 urteko semea daukat etxean bizitzen. Lan barik geratu zen aspaldi eta gurekin bizi da. Nire emazteak ez du ezer kobratzen, ez du diru-sarrerarik. Eta gure semeak ez diote batere laguntasunik ematen. Beraz, nire pentsioarekin bizi gara. Gainera, esan ziguten Gizarte Zerbitzuetan, semea etxetik joanez gero, orduan

bai, orduan emango ziotela 400 euroko laguntasuna hilero. Baina nora joan behar du 400 euroekin? Horrek ez du ezertarako ematen”.

**Kalean segituko dute**

Guri dagokigunez, ez gaituzte kaletik erretiratuko. Lehen lerroan segituko dugu, elurra egin zein eguzkia egin; neguan zein udan. Hementxe izango gara”.

# Ixa Rodriguezek apirilaren 14an boxeolari profesional moduan debutatuko du



Ixa Rodriguez boxeo eskola ematen, oraingo asteko martitzenean, Arane kiroldegian.

Boxeo gau-bela antolatu du Soraluzeko boxeolari Ixa Rodriguezek datorren apirilaren 14rako, 20:00etan Arane kiroldegian. Soraluzeko eta Bilboko boxeolariak parte hartuko dute ekitaldian. Jardunaldia, baina, berezia da Soraluzeko boxeolarientzat.

## Herriko lau boxeolari

Izan ere, bertan parte hartuko duten lauek debuta egingo dute: Ixa Rodriguezek boxeolari profesional modura eta haren ikasle Ousama Hinak, Adur Odriozolak eta Julen Gallastegik amateur modura.

Guztira 7 boxeolarik jardungo dute apirilaren 14ko gau-belan; horietatik seik hiru minututako hiru round egingo dituzte. Ixa Rodriguez, berriz, beste boxeolari profesional batekin, Eloisa Rodriguez madrildarrarekin borrokatuko da, bi minututako lau roundetan.

## Espainiako txapeldun

Profesional modura debutatzeaz aparte, Soraluzeko boxeolariak buru-belarri jardungo du aurrerantzean kirol horretan.

Boxeoarekin zerikusirik ez zeukan lanari utzi egin baitio boxeoan zentratzeko. Helburua ere argi du: Espainiako txapelketa Soraluzera ekartzea eta, jakina, Espainiako txapeldun izatea.

Gaur egun, Euskal Herrian, bi emakume boxeolari profesional baino ez daude: Ixa Rodriguez bera eta Violeta Gonzalez bilbotarra, eta biek jarduten dute Neskaibox taldean, Bilbon. Beraz Gipuzkoako boxeolari profesional bakarra da soraluzetarra.

## Bost borrokaldi

Soraluzen debuta egin ondoren, beste lau borrokatan parte hartu beharko du Ixa Rodriguezek Espainiako txapelketako finalera iritsi arte. "Beste hiru borrokaldiak Euskal Herrian egingo ditut, eta bosgarrena izango da Espainiako txapelketa, baina oraindik ez dakigu hori non jokatu den".

Gaur egun, Las Palmaseko Yolanda Ramos da Espainiako txapelduna, baina "orain 2-3 urte haren kontra borrokatu nintzen eta irabazi egin nion", kontatu digu Ixa Rodriguezek.

## Sora lider

Gipuzkoako Liga Txapelketako infantil mailan bigarren sailkatu ondoren, otsailaren erdialdetik Txapeldunen Liga jokatzeko ari da Sorako infantil mailako taldea. Txapelketa horretan ere fin-fin dabilza soraluzetarrek, martxoaren 24ko asteburura lider direla iritsi dira-eta. Hain justu, lorpen horrekin ekin diote etxekoek bigarren bueltari; izan ere, maiatzaren 5ean bukatuko da Txapeldunen Liga.

## XVII. pilota txapelketa

Apirilaren 3ra arte eman daiteke izena Asierren eta Iñakiren omenezko pilota txapelketarako: Arranon, Bolian, Edurtzan edo Gaztelupen. Bost euro ordaindu behar dute ikasleek eta langabeek eta 10 euro, berriz, gainerakoek. Bikoteen zozketa apirilaren 5ean egingo dute Gaztetxean eta orduantxe emango dituzte txapelketaren gaineko xehetasun guztiak.

## Futbol 7 txapelketa

Futbol 7 izeneko txapelketa maiatzetik uztailean bitartean jokatu da aurretik, zapatu goizetan, Ezoziko Futbol Zelaian. Gehienez, 16 taldek parte hartu ahal izango dute, eta izena emateko epea zabalik dago apirilaren 27ra arte. Talde bakoitzak 125 euro ordaindu beharko ditu izena ematean. Informazio gehiago eskuratzeko: 943 75 24 66 edo kirola@soraluze.eus helbidean.

**Belarrak** *Loradenda eta belardenda*

Loreak, elikagai ekologiko eta osasungarriak, kosmetika eta etxea garbitzeko produktu ekologikoak

*Exera eramateko zerbitzu Enkarguak egiten dira*  
Tel.: 943 75 30 11



**ELIZPE**  
HORTZ KLINIKA

Zure gertuko hortz klinika, punta-puntako teknologekin lan egiten dugu. Cad-Cam sistema berritzailea erabiltzen dugu.

Elizburu, 3 behea  
SORALUZE  
Tel.: 943 75 25 67  
e-mail: elizpe3@gmail.com

Ordutegia:  
Astelehenetik ostiralera  
10:00 - 13:00 eta 16:00 - 20:00



**MABEL**  
ILEAPAINDEGIA

- Ileanzako keratina tratamendua
- Depilazioa
- Ile-sustrairik gabeko permanentea
- Makilajea
- Manikura erdiirauunkorra
- Solariuma

Errabal 1  
Tel.: 943 75 14 89



**Carpintería**  
**MANU**  
Aroztegia

Ateak  
Bentanak  
Pertsianak  
Sukaldeak  
Tarimak

Manuel Cifuentes  
Estazioa 8, barrena · Mug. 636 05 81 25



**KM** design  
Kiru Muntaiak

943 76 99 85

kinumuntaiak@yahoo.es  
www.kmdesign.es

Pol. Amillaga 5  
BERGARA

- Diseinu eta Fabrikazio lanak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Logelak
- Zoruak
- Ateak...
- Arotzeria lanak oro har
- Instalazioak

*Jatearen plazerra, bertatik bertara*

**Batzoki**  
OSTERIA

eguneko menua  
asteburuetan  
karta eta razioak

ogitartekoak eta  
hamburgerak  
enkargu bereziak

familia eta  
lagun arteko  
bazkariak

Erreserbak: 943 75 20 16



**Mimas**  
ILEAPAINDEGIA

*Ileapaindegia*  
Estetika  
Solariuma

Gabolatz, 6, behea  
Tel.: 943 75 15 13 - 682 51 14 04



**Etxabe**  
Harategia

- Etxera eramaten da
- Enkarguak hartzen dira
- Soraluzeko baserrietako produktuk
- Etxeko tripaki eta txistorrak

Etxaburueta 5  
Telefona: 943 75 23 75



**Hortz klinika**

Javier Alonso  
Mediku Estomatologoa  
K.Z. 48.000.591

Katia Gustino  
Odontologoa  
K.Z. 48.001.541

Minik gabeko anestesia, odontologia orokorra, protesi finikoa eta mugikorra, odontopediatria, ortodontzia, inplanteak, estetika...

Errabal 1 · Tel.: 943 75 16 13



**IZAGUIRE**  
Igeltseritza

Eraikin berriak · Kalitatezko emaitza  
Erreformak · Era guztietako igeltseritza

50 urteko esperientzia · 610 638 913 · 649 867 289




**KLB6**

Kalebarren 6  
943 57 74 26

Mutlen eta nesken moda gaztea

f KLB6  
610. Sare Jantziendia

Pepe Jeans  
**BLENDE**  
MAISON SCOTCH  
LA FIDÈLE SEDAN MARIE

**SOLID**  
MUNICH  
VERO MODA

new balance



**Kontulan**  
aholkularitza  
A B O K A T U A K

Errenta aitorenak · Administrarritza lanak  
Trafikoko burokrazia · Lan-arloko aholkularitza  
Enpresen kontutzio/disoluzioak · Kontabilitatea

Santa Ana, 13 - 1. ezk. 20590 Soraluze  
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82



**ION MURGIZU BAKAIKOA**  
PINTOREA

arrunta  
dekoraziokoa  
industrialia

Tel. 943 75 13 24 Mug. 652 77 70 30



**Soraluzeko**  
Kooperatiba Elkarte

1910etik zabalik

Arraiedegia, janaria,  
erropak, etxeko tresnak,  
etxera eramateko zerbitzua

Astelehenetik ostiralera:  
08:30 - 12:30 eta 17:00 - 19:45  
Larunbatak: 08:30 - 13:00

Kalebarren 4  
Tel.: 943 75 13 45



Euskalzetatasunaren alde:

**SOMABE** **Aras** **ALBISUA** S.L. **laibi** ELECTRICIDAD **SORALUCE**



# Bertsolari gazteak Gaztetxean

Apirilaren 5ean, XV. *Plazatik Gaztetxera Txapelketaren* kanporaketa jokatu da Gaztetxean. Bertan, sei bertsolari gazte ariko dira bertsoan: Ander Zulaika, Garazi Navarro, Jokin Bergara Eguren, Koldo Gezuraga, Ane Beloki Lopez eta Asier Galarza. Iragarri dutenez, saioa gaueko 22:30ak aldera hasiko da, lagunarteko afariaren ostean. Afaritarako, aurrez eman behar da izena, Arranoan, Gaztelupen, 649 22 80 40 telefonora deituta (Mikel Hernandez) edo bertso eskolako edozein kideri jakinarazita.

## 24 bertsolari eta 7 herri

Urtebeteko geldialdiaren ostean, bueltan da *Plazatik Gaztetxera Txapelketa*, sorrerako helburu bereberkin: bertsolari gazteei plazak eskaintzea eta bertsoa Gaztetxeetara hurreratzea. Aurtengo edizioan 24 bertsolarik hartuko dute parte eta kanporaketak ondorengo herrietako



2013ko saioa.

Gaztetxeetan egingo dira: Oñati, Zestoa, Soraluze, Itziar, Eibar eta Deba. Finala maiatzaren 12an jokatu da Ondarroan.

**Musika gau bi apirilean**  
Apirileko bi barixakutan kontzertuak ere izango dira

Gaztetxean. Batetik, apirilaren 6an *Indian feathers* eta *Garraxi* taldeek joko dute; bestetik, apirilaren 20an *Gorpuzkingz* taldeak joko du. Apirilaren 27an, hileroko azken barixakuetan egin ohi denez, Tripafesta jantoki beganoa izango da Gaztetxean.

# Errazuren margoak New Yorken

Martxoaren 21ean hasi eta 25era bitartean, Jon Errazuren margolanak ikusgai izango dira New Yorken, *Affordable Art Fair*-en, artelan eskuragarrien azokan. Errazuk Bartzelona eta Amsterdamen egoitza duen *Villa del Arte Galleries* etxearen bitartez parte hartu berri du Londresko *Affordable Art Fair Spring* azokan eta New Yorkera iritsi da orain.

## 10 urte pasa margotzen

Jon Errazuk (Soraluze, 1982) urte asko daramatza Bartzelonan bizi izaten eta hamar urte baino gehiago daramatza margotzen, estilo garaikidean, batez ere.



Jon Errazu 2016an Alberto Ramirezekin batera herrian egin zuen erakusketan.



# Kantautoreen zikloa Arranoan

Arrano elkarteak hainbat musika emanaldi antolatu ditu datozen hilabeteetarako; batez ere, kantautoreenak. Bariku honetan, gaueko 23:00etatik aurrera, *Jonu* kantautoreak joko du, eta, apirilaren 20an, *Morau* izango da, bere disko berria aurkezten: Egunsentiak Alperrentzat. Hala esan digu Gorka Salaberria Arrano elkarte baskideak: "Helburua da, barixaku gauetako giroa bizitzea herrian, zuzeneko musika emanaldiez gozatzeko aukera eskainita".

## Jonu kantautorea

Jonu kantautoreak 2000. urtean ekin zion bere ibilbideari. Kitarra lagun inguruko gertakari, berri edota albisteei kantatzen die



Andoni Tolosa 'Morau'.

kantautore bizkaitarrak. Bere kantuetan ingurugiroa, gai sozialak, barneko ezinegonak, egoera

politikoa aipatzen ditu; beti ere, konpromisoa eta soiltasuna uztartzen dituen kantakerarekin.

# Irakurri eta irabazi saria

## Irakurri, Gozatu eta Oparitu

egitasmoaren 12. edizioa martxan da, eta, dagoeneko, hamaika euskal liburu zintzilikatu dituzte Udala Liburutegiaren sarreran. Liburu horietako bat irakurri eta ostean fitxa betetzen duenak aukera izango du euskarazko liburuak %35 merkeago erosteko (Gabolatseko Estankoan eta Iratxo Gozotegian), baita, 30 euroko txekia irabazteko ere. Antolatzaileen esanetan: "aukera ederra da liburu bat oparitzeko". Maiatzaren 31ra bitartean zabalik dago parte hartzeko epea.

Ekimenak euskarazko irakurzaletasuna sustatzea du helburu eta Pil-pilean Euskaltzaleen Elkarteak antolatu du Soralezuko Udaleko Hizkuntza Politikarako Batzordearekin batera. Aurten, lehen aldiz, ikastetxeak eta institutuak ere parte hartuko dute. Gainera, apirilean eta maiatzean hiru literatura-emanaldi antolatu dituzte, adin ezberdinei zuzenduta: *Amilami*, *Kontu kantari* eta *Porto*.



Jon Arretxe idazlea.

## Arretxe irakurleen klubean

Jon Arretxe idazleak *19 kamera* liburuaz berba egingo du Euskarazko Irakurleen Klubak apirilaren 9rako antolatu duen saio berezian, 19:00etan, kiroldegiko Erakusketa Gelan.

Saioa irekia da parte hartu nahi duen edozeinendako, baina parte

hartu nahi dutenek udaletxean eman behar dute izena, martxoaren 26a aurretik. Izan ere, saioan parte hartzeko liburuak alde aurretik irakurri beharra dago eta izena ematen dutenek doan jasoko dute liburuak. Ohi moduan, Jasone Osoro elgoibartarra izango da saioa dinamizatuko duena.

# Ane Ibarzabal

## Soraluzetik Donostiara



Ane Ibarzabal (Soraluze, 1985), Donostian bizi da orain dela 17 urte. 16 urterekin joan zen udalerritik, batxilergoa bertan egitera.

Gurasoekin joan zen, eta ondoren goi-mailako Turismo ikasketak ere bertan egin zituen. Karrerako bi udak Irlandan pasatu eta gero, Portugalera joan zen Erasmus programaren bidez. Handik Donostiara bueltatu eta hiru urtez Maria Cristina hotelean egin zuen lan, harreran. Baina atzera ere kanpora joan zen, Parisera.

### Parisen zer egin zenuen?

Kulturaren arloan lan egin nuen, Musée d'Orsay-n, hain zuzen. Bertan, bi urtez bizitzen nengoela, Donostiako Sustapenak beka eman zidan, Bordeleko Akitania Museoa zerbitzu kulturean lan egiteko, behin-behineko erakusketak muntatzen, komisarioekin-eta elkarlanean. Horrek ekarri zuen gero Donostiara itzultzea.

### Zela?

Nolabait, bi museoen arteko harremanak bultzatu nituen, zubi moduko bat sortu nuen Akitaniako Museoa eta San Telmo Museoa artean, 2016an Donostia Europako Kultur Hiriburua

ekimenaren baitan. Bi museoek gizarte eta historia lantzen dute, bakoitzak bere lurraldean. Esperientzia polit eta aberatsa izan zen. Momentu hartan Bordelen *Galoak Akitanian* erakusketa zegoen eta sortutako hartu eman horiei esker, itinerantzia San Telmora ekarri zuten ondoren. Eta kanpoan hiru urte eman eta gero, bueltatzea erabaki nuen. Beka bukatu, uda tokatu zen eta bueltatu egin nintzen.

### Orain San Telmo museoan zabilta lanean, ala?

Bai. Kultura arlora bueltatu nahi nuen, San Telmoko lantaldea ezagutzen nuen, Hezkuntza departamentuan lanpostu eskaintza zegoen eta nire hautagaitza bidali nuen. Orain mediazioan egiten dut lan, museoko lantaldearekin eta Hezkuntzako arduradunarekin batera. Adibidez, iaz hezkuntza eskaintza berri genduen museoan. San Telmon erakusketa iraunkorra eta behin-behineko erakusketak ditugu, besteak beste. Indartu egin nahi genduen erakusketa iraunkorra; batez ere helduak, gazteak, umeak etor daitezen museo sentitzera, gozatzea, amestera eta bizitzera.

1. Ane Ibarzabal museoaren aurreko aldean.
2. Ane Ibarzabal J.R. Amondarain artistaren lan baten aurrean.
3. Ane Ibarzabal museo barruan, Amondarainen beste obra baten aurrean.

**“Mediazioan egiten dut lan, San Telmo museo lantaldearekin”**

# 'aupa gu', indarra hartzen dabilen marka



Lorea de Castrok (Soraluze, 1984) serigrafia baliatzen du ideiei eta sormenari hegoak emateko. Sekula diseinuan ibili bakoa eta ikasketaz eta lanbidez psikoterapeuta izanik, “premia” sortu zitzaion “eskuekin zerbaite egiteko” eta plantillekin hasi zen bide hori lantzen. Teknika hori, baina, “motz” geratzen zitzaioela-eta, serigrafiarekin lanean hasi eta 2016an sortu zuen *aupa gu!* marka: “Joarrek eta biok etxean erabiltzen genuen esaldia zen hori, gure artekoa, eta hari egin nion lehen kamiseta izan zen *aupa gu!*” berbak zituena. Ikusita jendeari gustatu egiten zitzaioela, animatu eta inbertsio txiki bat egin nuen serigrafiako materialean beste diseinu batzuk egiteko”.

Harrezkero, euskal kantuetan, bertsoetan, esaeretan, gustuko marrazkietan edo *aupa gu!* markan oinarrituta, denetik egiten du: kamisetak, kirol-jertseak, umeendako bodyak, praktikak, txapelak, amantalak, kuleroak, galtzontziloak, motxilak, poltsak...

Horiek guztiak merkaturatzeko kalea eta Internet ditu saltoki nagusi, baina esparrua handitzen joan zaio “Bi denda fisikotan ere eskaintzen ditut produktuak: Igorreko Zazpi Haizetara dendan eta Eibarko EME

dendan. Bestalde, enkarguz, taldeendako ere egiten ditut gauzak: Urrats dantza-taldearendako, Mendi-taldearendako... Mendizabal okindegikoen poloak, esaterako, nik egindakoak dira,... Eta artisau eta kamiseta azoketan ere ibiltzen naiz”.

Harrera ona dute De Castroren produktuek: “Jendeari gustatzen zaizkio bai, ez bertatik bizitzeko adina, baina bigarren jardura edo hobby bezala ibiltzeko bai”. Eta gustura dago horrekin, ze helburua ez da horretatik bizitzea, bere lanbidea “oso gustuko” duelako.

Bestalde, jantzietan ezezik, iaztik egurrean ere ari da serigrafia egiten. Berak egindakoak ziren, esaterako, Gaztañerre egunean omendutako baserritarrei zein Boluntario Egunean Mesedeetako egoitzako boluntarioei opari emateko egurrean landutako marrazkiak. Udalerriko argazkietan oinarrituta egin zituen, hain justu. Azoketara ere hasi da material hori eramaten, pertsonalizatzeko aukera emanez. Orain, berriz, udaberri-udako materiala prestatzen dihardu buru-belarri eta zera aurreratu digu: “kolore berriak datoz eta txapelak egiten ere hasi naiz, saredunak, umeendako, eta helduendako *aupa gu!* logoarekin”.

1. Lorea de Castro berak landutako hainbat produktuekin.
2. Motxila bat.
3. Kirol-jertse bat euskal kantu ezagunaren letrarekin.
4. Plantilla markaren oraingo logoarekin.

**Harremanetarako:**

[www.aupagu.eus](http://www.aupagu.eus)

680539776

[aupagukamisetak@gmail.com](mailto:aupagukamisetak@gmail.com)



Domentx Uzin berak jotzen dakizkien musika instrumentuetako batzuekin, musika eskolan.

# Musika ogibide eta pasio

Domentx Uzin (Soraluze, 1976) oso ezaguna da udalerrian. Bertako musika eskolan irakasle izateaz aparte, urte luzeak daramatza musika kalean partekatzen, modu askotan: musika eskolakoekin, txarangarekin, txistulari taldearekin, gaiteroekin, lagun giroan... *Musika non, Domentx han* esaera balekoa litzateke kasu honetan.

ARGAZKIAK: FERNAN OREGI TESTUA: UBANE MADERA

Lanbidez, musika irakaslea da; Soraluzeko Musika Eskolan txistua, gaita eta saxofoia erakusten ditu, eta hainbat ikasle talderen ardura ere badu. Arrasate Musikalen gaita erakusten eta hezkuntza bereziko ikasleekin musika lantzen dihardu. Bizibidez musikaria da, ezin dio barruan eutsi musikari. Elkarrizketa honek iraun duen ordubetean ere, buruan duen erritmoren bat “jotzen” ibili da eskuarekin mahaiaren gainean., adibidez.

## Musikari oparoa

“Ofizialki” bibolina ikasi zuen, Bergaran. “Bibolina nahiko zentrala zen niretzat. Gero, Juan Luis Ugaldek konbentzitu ninduen helikoia ikasteko, Soraluzeko Musika Eskolan txaranga sortzeko beharra zegoelako, eta lau urtez ibili nintzen hura ikasten. Egia esan, eman

du berea, ze orain lagata daukat baina Karidadeko Bentarekin ibili nintzen urte batzuetan; orain dela hiru urtera arte, Gasteizko txaranga batean tope, Bergaran Erramu Zapatuan ere eta herriko txarangarekin ere bai”.

Beste hainbat tresna ere jotzen ditu. “Beti jo izan dudana beste instrumentua eta gertuago sentitzen dudana gitarra da. Nerabearoa baino lehen kantuak ikasten hasten zarenean, eta lagunartean, gehien lagundu didana da. Azkenaldian, txistua eta gaita dira gehien jotzen ditudanak. Gainontzean, pianoa ere kuriositatez jotzen dut noizean behin; saxofoia ere bai, eta biola ikasten dihardut Arrasate Musikalen, zarzueletan jotzeko... Pentsatzen jarrita, lehen instrumentu ofiziala danborra litzateke, ume nintzela txistulariekin jotzen nuen eta”.



Domentx Uzin pianoarekin.

## “Gaitarekin oso ilusionatuta nabil orain; erraldoiekin-eta kalejirak egitea oso gustuko dut”

Askoren errezeloa da Uzin gai dela musika tresna guztiak jotzeko. “Askotan esaten didate hori. Bai zera!” dio. Hala ere, zortzi instrumenturen jakintza baduela agerikoa izanda, zera dio apal-apal: “Instrumentu baterako ikasten duzunak beste askotarako ere balio du”.

### Musika-egile

Apaltasun hori benetan nabarmena da Domentx Uzinengan. Horren adibide da, norberak ekarri behar diola gogora musikari ez ezik, musika-egile ere badela. “Txisturako kalejira bat egin nuen: *Atxolin*. Eta orain nabil Ezozí fandango-arin-arin-kalejira egiten. Goienarako *Kantari* kantua egin nuen. Kukumixorendako kantua eta Topa Egunerakoa ere egin nituen, Ariannerekin (Unamuno) batera”, azaldu du.

Hala ere, sortzaile baino, moldatzailea gehiago dela dio. “Partitura asko egokitu izan ditut. Musika eskolarako, jaietako jaialdirako instrumentu bakoitzarentzat, fado talderako, txarangerako...”.

### Taldean nahiago

Bakarrik baino, taldean aritzen da gehiago. Soraluzeko txistulariak, Soraluzeko gaiteroak, Galtzagorri txaranga eta Ventos de Saudade fado taldeko kide da. Duela urte batzuk, Karidadeko Benta talde ezagunean ere aritu zen. “Herrian gauza desberdin asko egin izan ditut: abesbatzarekin kolaborazioak; Andoni Callesekin eta Jon Basaurirekin urte askoan aratusteetan zerbait egin izan dugu, *Trio Plaentxi* esaten diogu gure buruari (barre); Unai Larreategi Mendotzekin trikitiarekin eta bonbardinoarekin, batez ere, San Roke txikitari; aurretik RKzulo jaialdian eta Galipoteko jaietan ibili nintzen... Eta noizean behin, freelance moduan, Aitor Biainen proiektu batzuetan jo izan dut bibolina, Ganbara Abesbatza edo Bergarako Orfeoiko proiektuetan. Polita izaten da, ze bailara mailan berak elkartzen ditu musikariak eta kontzertu bereziak antolatzen ditu: Bach eta Vivaldiren obrekin, Mozarten Requiem...”.


Antzerkiarekin keinuka ere aritu izan da: “Pare bat obratan: *Sialuk hartz txikiaren bidaia* da bat eta bestea da *On, Off*”. Bertso jaialdiren batean ere parte hartu izan du. Eta jaietako jaialdian urteak daramatza, behin mariatxi talde bat etorri ezinda geratu zenetik. Bide batez, Uzinek honako mezua helarazi nahi du: “Jaialdian parte hartzea nahi duten musikari eta musikazale guztiak gonbidatuta zaudete, zabalik daude jaialdirako ateak. Etorri eta jarri harremanetan gurekin, gustura hartuko zaituztegu eta.”

### Etorkizuna, gaitarekin


Aurrera begira bere burua zertan ikusten duen galdetuta, ostera, laster erantzun du “Gaitarekin oso ilusionatuta nago. Deitu izan didate Arrasateko gaiteroek danborra jotzeko edo San Juanetan kalejira egiteko erraldoiekin eta benetan asko gustatzen zait. Pasatu zaigu burutik Plazentzian ere antzekorik egitea. Erraldoiak-eta asko gustatzen zaizkit eta ume pilo inguruan ibiltzea ere bai. Berehala kalea bete egiten zaizu... Gainontzean, beti daukat zerbait sortzearen erronka hori.”

Musikaren aberastasuna eta haren ekarpena azpimarratuta bukatu dugu elkarrizketa: “Beti esan izan da musika ikasteak eta musika bizitzeak gure buruan, gorputzean eta bihotzean sortzen duena ona dela, baina ez dakigu bene-benetan zein punturaino den aberasgarria eta pertsonaren osagarria”.

ZORION AGURRAK




**Izer Perez eta Itxaso del Campo**  
Martxoaren 3 eta San, 4 eta 37 urte. Asko maixte zaituztegu. Etxekuen partez.



**Adur**  
Martxoaren Iean, 16 urte. Zorionak! Amaren partez. Segi halakoxe guapo!



**Carlos de Cos Maiztegi**  
Martxoaren 11n, 19 urte. Zorionak! Muxu bat denon partez, bereziki, Gorkaren partez!



**Iraultza Diez Rascon**  
Martxoaren 25ean, 11 urte. Zorionak etxekoek partez. Maite zaitugu etxeko printzesa.




**Janire Muñoz Pellitero**  
Martxoaren 8an, 10 urte. Zorionak familiaren partez. Muxu handi bat caritina!



**Aratz Azkorbebeitia eta Naroa Zubiaurre**  
Martxoak 4an eta 11an, 12 eta 5 urte! Zorionak bikote!



**Ibai Rodriguez Larrañaga**  
Martzoan 11an, 14 urte!! Zorionak txapelduna!!! Maite zaitugu MUACK



**Paula Muñoz Mendo**  
Apirilaren Iean, 7 urte. Zorionak, printzesa! Asko maite zaitugu. Aita, ama eta Julen.



**Amets Alberdi**  
Apirilaren 12an, 9 urte. Zorionak polit hori. Jarraitu gure etxea alaitzen zure izakerarekin. Maite zaitugu!



**Eneko Zubiaurre Mendizabal**  
Martxoaren 27an urtebete. Zorionak etxeko guztien partez!

**MENDIZABAL**  
okindegia  
Ogia - Prentsa - Gosariak

Astelehenetik ostiralera:  
08:00 - 13:00  
17:00 - 20:00  
Larunbatak eta igandeak  
08:30 - 13:15

Kalebarren 10  
Tel.: 943 75 13 99

**AURREZTU ENERGIA**

Berotu ura eguzki izpiekin edo airearekin

fontaneria  
**Solcaldres**  
iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com

**TXURITXU GOZOTEGIA**

Astelehenetik ostiralera: 08:30-13:00 eta 16:30-20:30  
Larunbatak: 08:30-13:30  
Igandeak: 08:30-14:30

Gosariak, ogia, prentsa, pastelak, bonboiak...  
Etxera eramateko zerbitzua

Tel. 943 75 24 43

**Txoko**

Eguneko menua, plater konbinatuak, hanburgesak, ogitarakoak, razioak, pizzak, gosaria...  
Enkarguak egiten dira  
Tel. 943 75 17 89

**SUMA**  
basolanak

mug. 635 71 34 08

**baso garbiektak eta entresakak**  
zortzi laguneko taldea zure zerbitzura

**TXURRUKA**  
JATETXEA

Sukalde tradizionala  
Eguneko menua  
Asteburuetako menu berezia  
Karta  
www.txurruka.com  
Tel.: 943 75 15 81

**TATTOO**

**ESTUDIO**  
ARTISTIKOA

**INIBIRU**

Bailejetan 16. SORALUZE (Gipuzkoa)  
Tel. 617725403 www.inibiruatuarte.com

## KINTADAK

**1928. urtean jaiotakoak**

Martxoan egin zuten bazkaria, Armendin.

## ESKELAK

## XXII. URTEURRENA

## Luis Casares Prado



1996ko martxoak 24an hil zen.

Alaitasunaren iturritik edan genuen elkarrekin  
oroimenean izango zara zu beti gurekin.

*Etxekoak*

## JAIOBERRIAK

**Elai Habegger Peñalba**

Martxoaren 8an jaio zen.

## HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

**Hildakoak**

Jose Luis Azcorbebeitia Astorquia  
Damian Arnaez Fernandez  
Manuel Ismael Peñin Garcia

**Jaiotakoak**

Elai Habegger Peñalba



## AUZOKO EGUNA

Maiatzaren 5ean,  
Soraluzen



PIL-PILEAN  
MARTXOAREN 5. EGUNA



auzoko

IRAKURRI  
GOZATU  
OPARITU ETA




# 1001 mundu



Euskarazko liburu bat irakurtzen gozatu eta gainera, beste liburu bat %35 merkeago erosteko txeketa lortuko duzu. Martxoaren 12tik maiatzaren 31ra, zure herriko liburutegian.

## LITERATUR LOREAK Udaberriko literatur zikloa




### Amilami

Umeendako ipuin kontaketa  
Apirilak 19, 17:00etan Antzokian



### Mundutik kontu kantari

Ipuin eta musika emanaldia  
10-16 bitarteko gazteentzat  
Apirilak 20, 18:00etan Kirolegian



### Porto

Literatur emanaldia helduendako  
Maiatzak 18, 22:00etan Antzokian

Antolatzailea:



Babeslea:



SORALUZKO  
UDALA